

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaile, Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, 'langabezia diru-laguntza amaitu zaien pertsonen zuzendutako laguntza ezartzeko' legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran urgentziaz eztabaidatua izan dadin:

ZIOA:

Abuztuan berriro ere langabeziak gora egin du, eta dagoeneko EAEn 120.000 pertsona baino gehiagok galdu du bere lana. Gainera, horietatik 30.000 edo 40.000 pertsonak, dagoeneko, ez du langabezia saririk jasotzen.

Erakunde publikoen helburua izan behar du inor ez bazterrean uztea eta egoeraren larritasunak neurri ez-ohikoak eta tinkoak hartzea eskatzen du. Egoerari ezin zaio erantzun esanez, badugula bazterkeria sozialaren aurkako lege bat eta hor jasotzen diren laguntzak nahikoak direla. Gure ikuspegiko, orduan ere motzegi geratu zen lege hori; onura ekonomikoko garaietan onartu zen, langabeziaren tasak oso baxuak zirenean, eta onura ekonomikoko garaietan bazterkeria sozialari aurre egiteko neurri bezala onartu zen.

Gaur egun oso bestelakoa da egoera eta erakunde publikoek ekimena hartu behar dute 120.000 pertsona horiek bazterkeria sozialaren atarira heldu baino lehen. Kontua ez da muturreko egoeran daudenean laguntza ematea, baizik eta egoera ez-ohiko horretan langabezia-sariaren luzapena litzatekeen prestazioa ezartzea, egoera ekonomikoak hobera egin eta lan berri bat aurkitzen duten bitartean bizi-baldintza duinak bermatze aldera. Egoeraren larritasunak ez-ohiko ekimena hartzea eskatzen du, lana galdu dutenei zuzendua bereziki, lan berria lortu bitartean bizitza duina bermatzeko adinako neurria.

Lana galdu dutenei erantzun soziala emateko ez dira nahikoa bazterkeria soziala eta gutxieneko sarrerak bermatzeko legean jasotako laguntzak. Batetik, kopurua ez delako Lanbide arteko Gutxieneko Soldatara heltzen. Baina, batez ere, bazterkeria sozialari aurre egiteko laguntzetan langabezia saria jasotzeko jartzen ez diren baldintzak eskatzen direlako: bizikidetzaren unitatearen bestelako sarrerarik ez egotea, aurrezkirik ez izatea... Hitz baten, bazterkeriaren atarian egotea.

Bazterkeria sozialaren aurkako neurriak mantendu eta indartu egin behar dira, baina kasu horretan proposatzen ari garena da langabezian erori diren milaka pertsonen kolektiboari erantzun zehatz eta berezia ematea.

Bazterkeriaren aurkako lege eta ekimenez gain, oraindik bazterkeria sozialean erori ez diren, baina eurek sortu ez duten krisi ekonomikoagatik larritasun egoera bizitzen ari direnei ere zuzendutako ekimenak hartu behar ditu gobernuak eta, hori dela eta, zera proposatzen dugu:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarri dezala martxan langabetuei zuzendutako aldi baterako babes-programa, langabezia saria edo subsidioa agortu duten guztiei, eta inolako salbuespenik egin gabe, Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren pareko diru-laguntza emanez urtebetez.

Aldi berean, eskatzen dio lotu dezala diru-laguntza hori egun indarrean dagoen Enpleguaren Erregulazio Espedienteak eragindako langileei zuzendutako Formazio-programarekin, programa hau langabezia saria edo subsidioa agortu duten guztiei hedatuz.

URGENTZIAZKO TRAMITAZIOA:

Dagoeneko 30.000-40.000 lagun geratu dira inolako babes laguntzarik gabe, bai langabezia zein subsidioa amaitu zaielako, eta ikusita langabeziak gora egiten segitzen duela, ezinbestekoa da lehenbailehen hartzea neurriren bat egoera horretan dauden pertsonen laguntzeko. Horregatik uste dugu ezin dela eztabaida atzeratu, eta hortik urgentziaz tramitatzea eskatzearena, egoerak hala eskatzen duelako.

Gasteizen, 2009ko irailaren 7an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar Legebiltzar-taldeko bozeramailea